

IRAGARKIA

Arauzko jendaurreko informazio epean alegaziorik aurkeztu ez denez, behin betikotzat jo dira Udal Batzarrak 2023ko urriaren 11an hartutako hasierako erabakiak, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak aldatzekoak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Onartutako aldaketak ondorengo hauek dira:

ZERGAK

Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zerga

	Koef.	€
A) Turismoak:		
9 zaldi fiskal baino gutxiago	2,0819	38,29
9tik 11,99 zaldi fiskaletara	2,1320	78,41
12tik 13,99 zaldi fiskaletara	2,1318	130,68
14tik 15,99 zaldi fiskaletara	2,2187	190,41
16tik 19,99 zaldi fiskaletara	2,3293	257,02
20 zaldi fiskaletik gora	2,4402	329,08
B) Autobusak:		
21 plaza baino gutxiago	2,0622	171,79
21etik 50 plazatara	2,0622	244,66
50 plaza baino gehiago	2,0622	305,83
C) Kamioiak:		
1.000 kilo baina gutxiagoko karga baliagarria	2,0621	87,19
1.000-tik 2.999 kilora arteko karga baliagarria	2,0622	171,79
2.999-tik 9.999 kilora arteko karga baliagarria	2,0622	244,66
9.999 kilo baina gehiagoko karga baliagarria	2,0622	305,83
D) Traktoreak:		
16 zaldi fiskal baino gutxiago	2,0234	35,75

16tik 25 zaldi fiskaletara	2,0240	56,21
25 zaldi fiskal baino gehiago	2,0239	168,59
E) Trakzio mekanikoko ibilgaluek garraiatutako erremolke eta erdierremolkeak:		
1.000 kilo baino gutxiagoko karga baliagarria	2,0642	36,44
1.000-tik 2.999 kilora arteko karga baliagarria	2,0624	57,27
2.999 kilo baino gehiagoko karga baliagarria	2,0622	171,79
F) Beste ibilgaluak:		
Ziklomotorrak	2,0312	9,16
125 z.k.ra arteko motozikletak	2,0312	9,16
125 baino gehiago 250 z.k.ra arteko motozikletak	2,0812	16,07
250 baino gehiago 500 z.k.ra arteko motozikletak	2,1654	33,46
500 baino gehiago 1.000 z.k.ra arteko motozikletak	2,2728	70,23
1.000 z.k. baino gehiagoko motozikletak	2,3816	147,16

Hirilurren balio gehikuntzaren gaineko Zerga

HIRILURREN BALIOAREN GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.

I. XEDAPEN OROKORRAK

1. Artikulua. Ezarri beharreko araudia

Udal honek, Toki Ogasunak arautzen dituen Lurralde Historikoko Foru Arauen eta tributuari dagokion Foru Arauean aurreikusitakoaren arabera Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga ezarri eta esijitzen du, Ordenantza honi jarraiki, portzentaiei taula eta tarifa aplikagarriak barneratzen dituen Eranskina bere osagarria delarik.

2. Artikulua. Lurralde-eremua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatzen da.

II. ZERGAPEKO EGITATEA

3. Artikulua. Zergapeko egitatea

1.- Hirilurren Balioaren Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko tributu lokala da, lur horiek jasan dezaten eta, edozein titulu bidezko lur horien jabetza eskualdaketaren ondorioz edo aipatu lurren gaineko edozein

gozameneko ondasun-eskubideren, jabaria mugatuz, osaketa edo eskualdaketaren ondorioz agerian jarri dadin balio gehikuntza kargatzen duena.

2.- Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira hiri-lurtzat:

a) Hirigintza arloko plangintzak hirikotzat, urbanizatutzat edo horien baliokidetzat sailkatzen edo definitzen dituenak.

b) Lurzoru urbanizagarritzat jotzen diren lursailak, edo lurralde eta hirigintza arloko antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatuaren egoeran sartzea aurreikusi edo horretarako aukera eman dutenak, betiere sektore edo eremu espazial mugatueta sartuta badaude. Aurrekoez gain, horrelako izaera duten gainerako lurzoruak barne hartzen ditu, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza arloko tresna onartzen den unetik aurrera.

c) Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, betiere zatikatze horrek nekazaritza-erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu landa-izaera aldatzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

III. MENPEKOTASUN EZA

4. *Artikulua.* Zergari lotuta ez daudenak

Ondoko hauek ez dira zerga honen pean egongo:

1.- Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landalurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza. Beraz, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirilurtzat hartzen diren lurren balio gehikuntza zergari lotuta egongo da, Katastroan edo Zergaren Erroldan halakotzat ageri edo ez.

2.- Ezkontideek ezkontza sozietateari ondasun eta eskubideen ekarpenak egitea, ekarpen horien ordainetan ezkontideei ondasun eta eskubideak modu egiaztatuan esleitzea, eta ezkontideei beren hartzeko komunaren ordainetan eskualdaketak egitea.

Xedapen bera aplikatuko da, aurreko lerrokadan aipatutako kasu berberetan, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera osatutako izatezko bikoteko kideek egiten dituzten ekarpen, esleipen eta eskualdaketei dagokienean.

Ez da Zergarekiko loturarik izango, halaber, ondasun higiezinak ezkontideen artean, Maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eratutako izatezko bikoteko kideen artean edo seme-alaben alde eskualdatzen direnean, baldin eta ezkontza baliogabetu edo senar-emazteak banandu edo dibortziaztean emandako sententziak betetzearen ondorio badira, ezkontzako erregimen ekonomikoa zeinahi dela ere.

3.- Lurren eskualdaketak ez dira egongo zergari lotuta eskualdaketa eta eskurapen datetan haien balioen artean dagoen diferentzia kalkulatzeko balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzen denean.

Horretarako, balio gehikuntzarik ez dela izan frogatu nahi duen pertsona edo entitate interesdunak eskualdaketa aitortu beharko du, eta eskualdaketa eta eskurapena dokumentatzen dituzten tituluak aurkeztu ere bai.

Eskualdaketa balio gehikuntzarik ez dela izan egiaztatzeko, honako hau hartuko da luraren eskualdaketa edo eskurapen baliotzat kasu bakoitzean: eragiketa dokumentatzen duen tituluan ageri dena edo, kasua bada, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Ondorio horietarako, eragiketa horietan izandako gastuak edo aplikatutako tributuak ezingo dira konputatu, eta ez da inolako eguneratzerik izango denbora igarotzeagatik.

Higiezinaren eskualdaketa lurzorua eta eraikuntza sartzen direnean, lurzoruaren baliotzat hartuko da zergaren sortzapen egunean luraren katastro balioak katastro balio osoarekiko duen proportzioa aplikatuta ateratzen dena, eta proportzio hori aplikatuko zaie bai eskualdaketa balioari eta, hala badagokio, baita eskurapen balioari ere.

Eskurapena edo eskualdaketa kostu gabekoa izan bada, aurreko paragrafoetako erregelak izango dira aplikagarriak, eta, hala dagokionean, gorago aipatutako bi balio konparagarrietatik lehenengotzat oinordetzen eta dohaintzen gaineko zergan aitortutakoa hartuko da.

Apartatu honetan aipatutako higiezinaren ondorengo eskualdaketa, lurren balio gehikuntza zenbat urtetan sortu den konputatzeko, higiezina eskuratu aurreko denbora ez da kontuan hartuko. Ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdaketei ez zaie aplikatuko paragrafo honetan xedatutakoa, artikulua honen 2. apartatuko b) eta c) letren arabera zergari lotuta ez daudenean.

4.- Hiri-lurren balio gehikuntza, baldin eta Sozietateen gaineko Zergari buruzko uztailaren 4ko 7/1996 Foru Arauak VIII. tituluaren X. kapituluaren araututako erregimen berezia aplikagarria zaien eragiketetatik eratorritako eskualdaketen ondorioz gertatu bada. Aipatutako Foru Arauak 101. artikuluan jasotakoaren arabera ematen diren lurren gaineko eragiketak hortik kanpo geratzen dira, lurak jarduera adar batean sartuta ez daudenean.

Aipaturiko lurak geroago eskualdatzen badira, VIII. Tituluaren X. kapituluaren jasotako eragiketetatik eratorritako eskualdaketa ez du etengo balio gehikuntza sortu duen urte kopurua.

IV. SALBUESPENAK

5. Artikulua. Salbuespenak

1.- Balio gehikuntzak Zerga honetatik salbuetsiko dira egintza hauen ondorio direnean:

a) Zortasun eskubideak eratu eta eskualdatzea.

b) Uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarenak, 4.2.e) artikuluan aurreikusten duen salbuespena aplikagarri duten ondasunak eskualdatzea, baldin eta haien jabeek edo eskubide errealeen titularrek frogaturik uzten badute ondasun higiezin horiek artatu, hobetu edo birgaitzeko obrak euren kontura egin dituztela.

Salbuespen honen eraginkortasunaren baldintza artapen, hobekuntza edo birgaikuntza obrak udal baimenari benetan lotzea da. Era berean, beharrezkoa izango da aipatu lanak ondasuna inorenganatu aurreko lehendabiziko 2 urteetan gauzatzea.

Ondorio horietarako, eraikinen birgaikuntza obrak egitura, fatxada edo estalkinen eta beste antzekoen tinkotze eta trataeraren bitartez eraikin horiek berreraikitze helburua dutenak dira, beti ere obra horien balio kostu balio katastralaren %75 baino handiagoa bada.

2.- Era berean, balio gehikuntzak salbuetsita egongo dira zerga ordaintzera behartuta dauden pertsona edo entitateak ondoko hauek direnean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia eta, orobat, lurralde Administrazio Publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

b) Lazkaoko Udalerria, Udalerri horren parte diren edo izan daitezkeen gainerako Udal Entitateak, eta lurralde Administrazio Publiko horietako organismo autonomoak nahiz antzeko izaera duten zuzenbide publikoko entitateak.

c) Ongintzako edo ongintza-irakaskuntzako kalifikazioa duten erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren Entitate kudeatzaileak eta indarrean dagoen legeriaren arabera eratutako gizarte aurreikuspeneko Mutualitateak.

e) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortuta duten erakundeak.

f) Emakida administratibo itzulgarrien titularrak, emakidei atxikitako lurrei dagokienez.

g) Gurutze Gorria eta beronekin pareka daitezkeen beste Entitateak, erregelamenduz zehaztuko direnak.

h) Apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan definitutako irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra duenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeek zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarri fiskalei buruzko Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurak eskualdatzen badira edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eratzen badira eta irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten baditu, zerga horren salbuespena egiteko, lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergen salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, salbuespen hori aplikatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 16. artikuluan 1. paragrafoan araututako aukera baliatu dutela Udalari jakinaraztea eta Foru Arau horren II. tituluan jasotako zerga-araubide bereziari buruzko baldintza eta balizkoak betetzea ezinbestekoa izango da.

V. SUBJEKTU PASIBOA

6. Artikulua. Subjektu pasiboa

1.- Zergadun gisa, honako hauek dira Zerga honen subjektu pasiboak:

a) Terrenoak eskualdatzen direnean edo jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealak eratu edo eskualdatzen direnean, baldin eta musu truke egiten bada: Terrenoaren erosten duen pertsona fisikoa edo juridikoa nahiz Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatutako entitatea edo, bestela, eskubide erreala eratu edo eskualdatzen zaion pertsona.

b) Terrenoak eskualdatzen direnean edo jabaria mugatzen duten gozameneko eskubide errealak eratu edo eskualdatzen direnean, baldin eta ordain truke egiten bada: Terrenoak eskualdatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa nahiz Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatutako entitatea edo, bestela, eskubide erreala eratu edo eskualdatzen duena.

2.- Aurreko apartatuko b) letran aipatutako kasuetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da terrenoa erosten duen edo, bestela, eskubide erreala eratu edo eskualdatzen zaion pertsona fisikoa edo juridikoa nahiz Zergen Foru Arau Orokorrak 35.3 artikuluan aipatutako entitatea, beti ere zergaduna Espainian egoiliarra ez den pertsona fisikoa denean.

3.- Ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioaren ondorioz lursailak eskualdatzen direnean, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da lurra eskuratzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen den erakundea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkariak ezingo dio zergadunari eskatu ordaindutako zerga-betebeharraren zenbatekoa.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2014 Foru Arauaren 87. artikuluan hala definitutakoa.

4.- Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aplikazio-eremuaren barruan dauden zordunek egindako eskualdaketetan, arau horren eranskinaren 3. paragrafoan aurreikusitako etxebizitza ordainean ematearen ondorioz, higiezin eskuratzen duen erakundea hartuko da zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat. Hala, ordezkariak ezin izango dio zergadunari ordaindu beharreko betebeharren zenbatekoa eskatu.

VI. OINARRI EZARGARRIA

7. Artikulua. Zerga-oinarria zehaztea

1.- Zerga honen oinarria sortzapenaren unean agerian jarritako eta gehienez ere 20 urteko epean hiri-lurrek izandako balioaren benetako gehikuntza izango da. Hurrengo 3. paragrafoan xedatutakoa baztertu gabe, hura zehazteko, sortzapenaren uneko lurraren balioa 10. Artikuluan ezarritako moduan dagokion koefizientearekin biderkatuko da, ordenantza honen 8. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatuta.

2.- Oinarri ezargarria kalkulatzeko, kontuan hartuko da lurrak sortzapenaren unean duen balioa, 8. artikuluan jasotakoaren arabera, eta 9. artikuluan arabera hari dagokion portzentajea.

3.- Subjektu pasiboak eskatuta, ordenantza honetako 4.3 artikuluko prozeduraren arabera, balio-gehikuntzaren zenbatekoa aurreko paragrafoan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga-oinarriaren zenbatekoa baino txikiagoa dela egiaztatzen denean, balio-gehikuntzaren zenbatekoa hartuko da zerga-oinarritzat.

8. Artikulua. Lurraren balioa

Lurrak sortzapenaren unean duen balioa zehazteko, ondoko erregelak aplikatuko dira:

Lurrak sortzapenaren unean duen balioa arau hauetan ezarritakoaren arabera izango da:

1.- Lursailen eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa Ondasun Higiezinaren gaineko Zergarako finkatutakoa izango da.

Hala ere, aipatutako balio hori balio-ponentzia baten ondorioa denean eta hura onartu ondoren, planeamenduan aldaketarik jaso ez bada, zerga hori, behin-behinean, txosten horren arabera likidatu ahal izango da. Horrelakoetan, behin betiko likidazioan lurren balioa aplikatuko da, sortzapen-datari dagokionez izapidetzen diren balorazio-prozeduren arabera lortu ondoren.

Lurzoruak, hiri-izaera izan arren, zergaren sortzapenean katastroko balio jakinik ez badu, udalak likidazioa katastroko balio hori finkatzen denean egingo du. Gainera, balio hori sortzapen-uneari egokituta egongo da.

2.- Jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealek eraketan eta eskualdaketan, 10. artikuluan aipatutakoaren arabera urteko koefizienteak ezarriko zaizkio aurreko paragrafoan definitutako balioaren zatiari; zati horretan islatuta dago, hain zuzen, eskubide horien balioa, Ondare Eskualdaketan eta Egintza Juridiko Dokumentatuen gaineko Zergaren ondorioetarako finkatutako arauak jarraiki kalkulatuak.

Ondorio horietarako, arau hauek bete beharko dira:

a) Aldi baterako gozamenaren balioa ondasunen balioarekiko proportzionala izango da, urtebeteko aldi bakoitzeko 100eko 2, ehuneko 70 gainditu gabe.

b) Biziarteko usufruktuetan, balioa ondasunen balio osoaren 100eko 70 dela zenbatetsiko da, gozamenaren 20 urte baino gutxiago dituztenean eta, adinak gora egin ahala, beste urte bakoitzeko 100eko 1 gutxituko da, balio osoaren 100eko 10eko mugarekin.

c) Pertsona juridiko baten alde eratutako usufruktua, 30 urtetik gorako edo zehaztu gabeko eperako ezarri bada, zergei dagokienez, suntsiarazteko baldintzari lotutako jabetza osoaren eskualdatzea dela ulertuko da.

d) Aurretik eratutako gozamen-eskubide baten eskualdaketan, aurreko arauak jarraiki eratu zen egunean esleitutako ehuneko bera aplikatuko da.

e) Jabetza soilaren eskubidearen balioari dagokionez, gozamenaren balioaren eta ondasunen balio osoaren arteko aldearen arabera zenbatuko da. Era berean, aldi baterakoak diren biziarteko usufruktuetan, jabetza soilaren baloratzeko, aurreko lehenengo zenbakiko arauetatik balio txikiena ematen diona ezarriko da.

f) Erabiltzeko eta bizitzeko eskubide errealek balioa kalkulatzeko, ondasunen balioaren 100eko 75 aplikatuko da. Ondasun horiei ezarri zitzaizkien aldi baterako edo biziarteko gozamenak balioztatze arauak, kasu bakoitzean dagokionaren arabera.

3.- Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago igotzeko edo lurzoruen azpian eraikuntza egiteko eskubideak eratzean edo eskualdatzean, azalera-eskubide errealek dagoenik eragin gabe, ordenantza honen 10. artikuluan aipatutakoaren arabera urteko koefizienteak 8. artikuluan honen 1. paragrafoan zehaztutako balioaren zatiari aplikatuko zaizkio, baldin eta, horri dagokionez, eskualdatzeko eskrituran finkatutako proportzionaltasun-modulua islatzen badu edo, halakorik ezean, lur arrasean edo lur azpian eraiki beharreko solairuen azaleraren eta behin eraikita horiek duten azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioa ezartzearen ondoriozkoa.

4.- Derrigorrezko desjabetzeen kasuetan, 10. Artikuluan aipatutakoaren arabera urteko koefizienteak lurraren balioari dagokion balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, 8. artikuluko honetako 1. paragrafoan zehaztutako lurraren balioa txikiagoa denean izan ezik; izan ere, halakoetan balio justua lehenetsiko da.

9. Artikulua. Balio-gehikuntza sortu den aldia

Balio-gehikuntza sortu den aldia gehikuntza hori agerian jarri den urte-kopurua izango da.

Aplikazio-eremutik kanpoko kasuetan, Foru Arauak bestelakorik adierazi ezean, ondorengo lur-eskualdaketa batean agerian jarritako balio-gehikuntza sortu den aldia kalkulatzeko, aurreko lerrokadan xedatutakoaren ondorioetarako, zergaren aurreko sortzapena gertatu zen eguna hartuko da eskuratze-datatzat.

Aurreko paragrafoan xedatutakoa gorabehera, ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatu behar zaien higiezin onorengo eskualdaketa, lurren balio-gehikuntza agerian jarri den urte-kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia.

Igarotako urte-kopurua zenbatzeko, urte osoak hartuko dira kontuan, hau da, urte-zatiak kontuan hartu gabe. Sortu den aldia urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hilabete osoen kopurua kontuan hartuta hainbanatuko da, hau da, hil-zatiak kontuan hartu gabe.

10. Artikulua. Koefizienteak

Sortzapenaren unean lurzorua duen balioari aplikatu beharreko koefizientea, balio-gehikuntza sortu den aldiaren arabera, indarrean dagoen gehieneko koefizientea izango da, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikuluko ezarritakoari jarraituz.

Aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez argitaratzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, baita udalaren web orrian eta iragarki taulan ere.

VII. KARGA TASA, KUOTA ETA HOBARIK

11. Artikulua. Karga-tasa

Aplikatu beharreko karga-tasa kasu bakoitzean dagokiona izango da, I. eranskinaren arabera.

12. Artikulua. Kuota

- 1.- Zerga honen kuota zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da.
- 2.- Zergaren kuota likidua kuota osoari dagokion hobaria aplikatzearen emaitza izango da, hala badagokio.

13. Artikulua. Hobariak

- 1.- Lurrak eskualdatzean eta jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eskualdatzean edo eratzean, heriotzaren ondorioz irabazpidez egiten badira, kuota osoaren % 95eko hobaria izango dute ezkontideek, izatezko bikoteak arautzen dituen maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteko kideek, lehen

graduak zuzeneko ondorengoek eta adoptatuek, eskualdatutako ondasun edo eskubide hori jaraunslak hoietakoren baten ohiko etxebizitza denean.

Hobari hau aplikatzeko, ezinbestekoa izango da zerga likidatzeko aitorpena horretarako ezarritako legeak epearen barruan aurkeztea.

VIII. SORTZAPENA

14. Artikulua. Sortzapena

1.- Data hauetan sortaraziko da zerga:

a) Lurraren jabetza bizien artean edo heriotzaren zioz eskualdatzen denean, kostubidez edo dohan izanik ere, eskualdaketa datan.

b) Jabaria mugatzen duen edozein ondasun eskubide eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa gertatzen den datan.

2.- Aurreko zenbakiko eraginetarako hurrengo hau hartuko da eskualdaketa datatzat:

a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan agiri publikoa ematen denekoa eta, dokumentu pribatuak direnean, horiek erregistro publikoan inskribatzen direnekoa edo duen lanbidearen zioz funtzionari publiko batek ematen dituenekoa.

b) Heriotz ziozko eskualdaketa, sortzailearen heriotza data.

3.- Epailak edo Administrazioak ebazpen irmoak deklaratu edo aitortzen badute lurraren eskualdaketa edo beronen gaineko gozameneko eskubide errealearen eraketa edo eskualdaketa sortarazi zuen egintza edo kontratua deuseztatu, desegin edo amaitu dela, subjektu pasiboak eskubidea izango du berak ordaindutako zergaren itzulketa jasotzeko, baldin eta egintza edo kontratu horrek irabazirik sortu ez badiu eta itzulketa lau urteko epean erreklamatzeko badu ebazpena irmo bihurtu zenetik aurrera; irabazia egon dela ulertuko da justifikatzen ez denean interesatuek Kode Zibilak 1295. artikuluan jasotakoaren arabera elkarri egin beharreko itzulketak gauzatu behar dituztela. Egintzak edo kontratuak irabazirik sortarazi ez baina, desegitea edo amaiera Zergaren subjektu pasiboak obligazioak ez betetzeagatik deklaratzeko bada, ez da itzulketa eskubiderik egongo.

4.- Kontratu, alde kontratatzaileen elkarren arteko adostasunez ondorioz gabe gertatzen bada, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta tributuak ordaindu beharreko egintza berriztat hartuko da. Elkarren arteko adostasuntzat adiskidetzeko egintzako adostasuna eta demandarekiko amoregitea hutsa joko dira.

5.- Baldintzaren bat tarteko duten egintza edo kontratuetan, berauen kalifikazioa Kode Zibileko preskripzioen arabera egingo da. Etendurazkoa balitz, zerga ez litzateke likidatutako harik eta berau bete arte. Baldintza deuseztapenezkoa balitz, zerga exijitu egingo litzateke, noski, baldintza betetzen denean aurreko ataleko erregelaren arabera itzulketa egitearen erreserban.

6.- Testamentu-ahalmenetan, pertsona jakin batek jarauntsiz ondasunen gozamenerako eskubidea bizi artean duenean, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, oinordetza ireki deneko sortze-datarekin, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuz.

Testamentu-ahalmenetan, gozamina botere hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazioa, heriotza gertatzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Hala ere, testamentu-ahalmena gauzatzeko epe jakin bat badu, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauen arabera egingo da, ahalmen hori egikaritzeko ezarritako gehieneko epean.

b) Beste likidazio bat, testamentu-ahalmena erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauari erreparatuta, kausatzailea hil zenetik igarotako aldiarengatik, aurrekoagatik ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuta, eta aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Eta b) hizkiari dagokion likidazioa oinordekoena egiten den unean egin beharko da, testamentu-ahalmenaren oinordekoak direla adierazten badu, edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik.

7.- Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, xedapen-egintzen ondorioz testamentu-ahalmena egikaritzeko dauden jaraunspenak eragindako lursailen eskualdaketetan, eskualdatze horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko 16/1989 Zergaren xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Oinordetza Zergaren subjektu pasiboa izango da testamentu-ahalmena egikaritzetik geratzen dena, eta zerga eskualdaketa gertatzen den unean sortuko da.

b) Zerga-kuota zehazteko, likidazio bat egingo da, eskualdaketaren unean sortuko dena, kausatzaileak lurra erosi zuenetik igarotako denboragatik. Gainera, diru-sarrera gisa eman zena kontuan hartuko da 6. paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako likidazioan ordaindutakoa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren arabera xedapen-egintzen ondorioz, testamentu-ahalmena egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez eskuratutako lursailak eskualdatzen direnean, likidazio bat egingo da, eta eskualdaketaren unean sortuko da, jaraunspenaren bidez lurra eskuratu zenetik igarotako denboragatik.

c) Testamentu-ahalmena modu ezeztazinean erabiltzen denean, edo hura azkentzeko arrazoietako bat gertatzen denean, jaraunspen bidez eskuratuak izan arren, testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden lurra eskualdatzen badira, ekainaren 25eko 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak adierazi duen bezala, likidazio bakarra igorriko zaio gozamendunari, aldi baterako edo biziarteko gozamenaren arauen bidez. Lursailaren izaeraren arabera, egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez lursaila eskuratu zuenetik testamentu-ahalmena gauzatu arte igarotako denboragatik. Hobaria testamentu-ahalmena erabiliz azkentzen den kasuetan, likidazio bat igorriko zaio gozamendunari aldi baterako gozamenaren arauen bidez, lurra testamentu-ahalmena egikaritzeko dagoen jaraunspenak eskuratu zuenetik igarotako denboragatik. Likidazio hori jaraunslerei dagozkienak egitean egin beharko da, baldin eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraunslerei badira.

IX. KUDEAKETA

15. Artikulua. Zerga kudeatzeko sistema

1.- Subjektu pasiboek Udal Administrazioaren aurrean aurkeztu beharko dute Zergagatik dagokien aitorpena, administrazioak emango duen eredu ofizialaren arabera non tributu zerrendako elementua eta kuota zehazteko beharrezko gainerako elementuak azalduko bait dira, kuotaren ordainketa aitorpena aurkezten den ekintza berean ordaindu beharko da.

Adierazpenarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Bizien arteko egintzei buruzko eskualdaketak: zergak ordaintzeko betebeharra sortu duen egintza edo kontratua formalizatu duen dokumentuaren kopia, publikoa zein pribatua.

b) Heriotzaren kausazko eskualdaketak, jaraunspena esleitu duen eskrituraren kopia edo halakorik ezean:

- Zatiketa-koaderno pribatua, halakorik balego.
- Azken borondatearen ziurtagiria.
- Testamentua edo, hala badagokio, jaraunsele abintestatuko adierazpena.

c) Eskualdatutako higiezinaren eskuraketaren tituluen kopia.

Bi eskualdatze-motetarako eta, gainera, dohainik bada, ondasunen balorazioa jasotzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioaren/aitorpenaren kopia.

2.- Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz loturarik ez badago, beren beregi jasoko da hori adierazpenean.

3.- Subjektu pasiboak ordenantza honen 7. artikuluko 2. atalean xedatutakoarekin bat etorritik erabakitzen badu zerga-oinarria, beren beregi jasoko da aitorpenean. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatezteko, erregularizatzeko, egiaztatze, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formala izanda.

4.- Testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden jaraunspenetan, aurreko betebeharrak betetzea horien administratzaileari dagokio. Administratzaileak aitorpena sinatu beharko du eta dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalmena gauzatu zain duen jaraunspenaren administratzailea.

5. Eskatutako salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

16. Artikulua. Epeak

Hurrengo epeetan aurkeztu beharko da aitorpena eta horretatik ateratako kuota ordaindu, zergaren sortzapena sortuko den datatik aurrera zenbatuko direlarik:

a) Bizien arteko egintzetan, epea 30 lanegunetakoa izango da.

b) Heriotzaren ziozko egintzetan, epea sei hilabetetakoa izango da, subjektu pasiboak horrela eskaturik urtebaterako mugaraino luzatu ahal izango delarik.

17. Artikulua. Dokumentazio gehigarria eskatzea

Udal Administrazioak errekeritu ahal izango ditu pertsona interesatuak, Zergaren likidazioa burutzeko beharrezko erizten dituen bestelako agiriak aurkeztu ditzaten hogeitamar egunetako epean, interesatuak eskaturik beste hamabost egunez luza daitezkeelarik, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dietenек, dagozkien arauhauste eta tributu zehapenak izango dituzte, esandako agiriak aitorpena egiaztatu eta likidazioa ezartzeko beharrezko diren heinean. Esandako agiri horiek interesatuak bere onurako bakarrik alegaturiko gorabeherak egiaztatzeko bitarteko hutsak balira, errekerimenduari ez erantzuteak, alegatu bai baina zuritu gabeko zertzeladak kontutan hartu gabe likidazioa egitea ekarriko du.

18. Artikulua. Beste pertsona edo erakunde batzuk jakinarazteko duten betebeharra

10. artikuluan xedatutakoaz at, jarraian adieraziko direnek, Udal Administrazioari jakinarazi egin beharko diote egitate ezargarriaren buruketa, subjektu pasiboen epe berberen barruan:

a) Honako Ordenantza Fiskal honetako 6. artikulua a) hizkian bildutako kasuetan, beti ere bizien azteko negozio juridikoaren zioz sortarazikoetan, dohaintza emaila edo ondasun eskubidearen eratzailea edo eskualdatzailea.

b) Aipatu 6. artikulua b) hizkiko kasuetan, eskuratzaila edo ondasun-eskubidea bere alde eratu edo eskualdatuta duen pertsona.

19. Artikulua. Notarioen betebeharrak

Era berean, Notariotzak egutegiko hiru hilabeteko bakoitzaren lehen hamabostaldiaren barruan, egutegiko aurreko hiru hilabetekoan beraiek baimendutako agiri guztien zerrenda edo indize laburtua igorri behar izango dute nahitaez, bakoitzak bere udalari, haiek, dena den, eskuhartzaileen izen-deiturak, nortasun agiri nazionala eta helbidea eta, egintzak bil ditzatenetan, zerga honen egitate ezargarriaren eginkizuna ageriko jar dezaten egintza edo negozio juridikoak bilduko dituztelarik, azken borondateko egintzen salbuespenarekin. Epe berberaren barruan ere jakinaren gainean egon edo izenpeak legeztatzeko aurkeztu izan zaizkien egitate, egintza edo negozio juridikoen zerrenda igorri behar izango dute. Atal honetan aurrikusitakoa Lurralde Historikoko Foru Tributu Arau Orokorrean ezarritako lankidetzazko betebeharraren kalterik gabe.

20. Artikulua. Aitorpena aurkezteko errekerimendua

1.- Udal Administrazioak aitortu izan ez diren egitate ezargarrien egintzaren jakinaren gainean dagoenean, 16. artikuluan aipatzen diren epeen barruan, interesatuei errekerimendua egingo die aipatu aitorpena egin dezaten, tributu arauhaustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.

2.- Udal Administrazioak aurrikusitako errekerimenduak bideratuta eta interesatuek dagokien aitorpena aurkezten ez badute, ofiziozko espedientea izapidetuko da, berak dituen datuekin, dagokion likidazioa eginez eta, hala balegokio, dagozkion sartzen epeak eta errekurtsoen adierazpena azaldurik, tributu arauhaustapenen eta, hala balitz, dagozkien zehapenen kaltetan gabe.

21. Artikulua.

Ezin izango da Jabetzaren Erregistroan terrenoen eta gainerako zergapeko ekintzen dokumentua inskribatu, aldez aurretik Zerga honen ordainketa edota, kausa balitz, Kuoten ordainketaren atzerapena ez bada kreditatzen.

22. Artikulua.

Ordenantza honetan erregulatzen den Zerga honen likidazio, bilketa eta ikuskaritzari dagokion orotan, era berean zerga urraketak kalifikatu eta kasu bakoitzari jarri beharreko zehapenak finkatzeko orduan, Foru Zerga Arau Orokorrean aurrikusitakoa izango da aplikagarri.

X. AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau aldatzen duen erabakia II. eranskinean adierazten den bilkuran hartu zen, eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN osorik argitaratzen den egunetik aurrera izango ditu ondorioak, aldatzea edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

I ERANSKINA

<u>Urteak</u>	<u>Karga tasa</u>
Aldia edozein dela ere	0,10

II ERANSKINA

Hobariak:

Heriotza dela eta dohain egiten diren lur eskualdatze, edo jabaria mugatuz, ondasunen gaineko eskubide errealak eratze edo eskualdatzeak egiten direnean, kuota osoaren % 95eko hobaria aplikatuko zaie senar edo emazte, izatezko bikoteak arau tzeko maiatzaren 7ko 2/2003 Legearen arabera eratutako izatezko bikoteetako kideei, lehen graduko oinordeko zuzenei eta umeordeei, eskualdatutako ondasuna edo eskubidea ohiko bizilekua izanez gero, oinordeko horietako baten batentzat.

Hobari hau aplikatzeko, beharrezkoa izango da dokumentazioa Udaletxean, legezko epe barruan aurkeztea.

Azken aldaketaren onarpen data: 2024/10/11.

Eraikuntza, Instalazio eta Obrei buruzko Zerga.

Hobariak:	%
Eguzki energiaren edo beste energia berriztagarri batzuen aprobetxamendu termiko edo elektrikoa ahalbidetzen duten sistemen instalazioa	95
Ibilgailu elektrikoak kargatzeko puntuak instalatzeko beharrezkoak diren eraikuntza instalazio edo obren instalazioak	90

TASAK

Udal eskumeneko zerbitzuak eman edo jarduera administratiboak egiteagatik Tasak

* Hondakinen bilketa eta tratamendu zerbitzua.

	€
Etxeetako hondakinak, sei hileko:	81,99
Merkataritza eta zerbitzuen alorreko hondakinak, sei hileko:	
Jatetxe eta otorduak ematen dituzten tabernak	399,88
Edaritegiak, kafetegiak, pub-ak eta gastronomia elkarteak	244,33
Supermerkatuak, edozein motakoak (100 m ² baino handiagoak)	359,17
Denda txikiak, edozein motakoak (100 m ² baino txikiagoak)	189,37
Harategi eta arrandegiak	139,54
Profesionalen bulegoak	81,99
Gainerako zerbitzuak	139,54
Industrietako hondakinak, sei hileko:	
5 langiletik behera dituzten industriak	199,34
5-20 bitarteko langileak dituzten industriak	289,54
20-40 bitarteko langileak dituzten industriak	481,87
40 langiletik gora dituzten industriak, langile bakoitzeko	14,95
Zerbitzu berezia eskatzen duten enpresak	2.459,58
Jarduera nagusienekoa ez diren gainerako lokalak	134,48

* Estolderia:

Tarifa aldakorra:			€/m ³
Etxebizitza			1,0603
Etxebizitza ez dena			1,8555
Lau hilabeteko tarifa finkoa:	Kontagailu kalibrea	Etxebizitza/€	Etxebizitza ez dena/€
	≤ 13 diametroa	15,9065	23,026
	15 diametroa	15,9065	23,026
	20 diametroa	28,7140	41,5590
	25 diametroa	43,0881	62,3511
	30 diametroa	59,8274	86,6033

	40 diametroa	119,6665	178,4972
	50 diametroa	179,4938	259,7373
	65 diametroa	358,9753	519,4754
	80 diametroa	538,4807	779,2245
	100 diametroa	717,9504	1.038,9381

* Hileta zerbitzuak.

	€
Lurperatzeagatik	350,00
Panteoietan hilobiratzea	350,00
Nitxo pribatuetan hilobiratzea	250,00
Nitxo publikoetan hilobiratzea	370,00
Erraustutako gorpuen hilobiratzea	170,00
Erraustutako gorpuak nitxo publikoetan hilobiratzea	110,00
Erraustutako gorpuak nitxo pribatuetan hilobiratzea	90,00
Nitxoen tapaetako plakan hainbat lan:	
Inskripzio grabatua	127,05
Oropien esaldia, hizki bakoitza	1,69
Grabatuak:	
A Erref. motakoak	76,59
E Erref. Motakoak	88,94
C Erref. Motakoak	119,19
G Erref. Motakoak	119,19
Lauburu Erref. motakoak	76,59
Loreontziak:	
3472 Erref.	74,66
518 Erref.	79,01

Argazkia koloretan 8 x 10	108,90
Plakaren ekarri-eramana	33,88

* Ibilgailuak geldiarazi eta bide publikotik erretiratzea.

	€
Geldiaraztea	59,40
Erretiratzea:	
Motozikletak	138,61
Turismoak	198,00

* Ur-hornidura:

- Ur-kontagailuen alta

Kontagailu kalibrea:	€
13 mm o 1/2" arte	59,25
15 mm arte	59,25
20 mm o 3/4" arte	76,16
25 mm o 1" arte	76,16
30 mm o 1 1/4" arte	89,70
40 mm o 1 1/2" arte	100,01
50 mm o 2" arte	113,46
65 mm o 2 1/2" arte	114,13
80 mm o 3" arte	154,08
100 mm o 4" arte	177,90
150 mm o 6" arte	221,873

- Ura

Tarifa aldakorra:	€/m ³
Etxebizitza	0,36831

Etxebizitza ez dena	0,64451
Nekazaritza ustiapenak	1,22259
Fugas ocultas	0,20856

Lau hilabeteko tarifa finkoa:	€	€	€
Kontagailu kalibrea	Etxebizitza	Etxebizitza ez dena	Nekazaritza ustiapenak
≤ 13 diametroa	5,5254	7,9973	21,8807
15 diametroa	5,5254	7,9973	21,8807
20 diametroa	9,9743	14,4363	39,4900
25 diametroa	14,9675	21,6588	59,2776
30 diametroa	20,7821	30,0833	82,3100
40 diametroa	41,5684	62,0043	164,6161
50 diametroa	62,3505	90,2246	246,9291
65 diametroa	124,6967	180,4493	493,8405
80 diametroa	187,0512	270,6780	740,7867
100 diametroa	249,3933	360,8943	987,7166

* Joxemiel Barandiaran udal kiroldegia:

- Kiroldegiko bazkidetza, udako igerilekuaren zerbitzua barne.

	Urteko bonua (€)	Udako hiruhileko bonua (€)
Banakako Heldua	160,31	110,15
Banakako 18 urtez azpikoa	86,42	55,05
Banakako Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	119,39	82,72
Familiarra	246,27	167,66
Familiar Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	174,90	120,72

- Kiroldegiko bazkidetza, udako igerileku estaligabearen zerbitzurik gabe.

	Urteko bonua (€)	Seihileko bonua (€)	Hiruhileko bonua (€)
Banakako Heldua	122,32	91,61	61,36
Banakako 18 urtez azpikoa	61,36	45,96	30,50
Banakako Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	91,81	68,96	45,96
Familiarra	179,31	134,49	89,55
Familiar Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	134,38	100,85	67,01

- Igerileku estaliko bazkidetza.

	Urteko bonua (€)	Seihileko bonua (€)	Hiruhileko bonua (€)
Banakako Heldua	97,97	73,58	48,83
Banakako 18 urtez azpikoa	49,09	36,87	24,44
Banakako Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	73,58	54,43	36,87
Familiarra	147,22	110,40	73,74
Familiar Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	110,20	82,67	55,25

- Igerileku estaligabeko bonua.

	€
Banakako Heldua	61,36
Banakako 18 urtez azpikoa	30,50
Banakako Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	45,96
Familiarra	89,55
Familiar Jubilatu edo Pentsionista (ez aktiboa)	67,01

- Muskulazio Gelako bonua

	€
Hiruhilekoa (urtarrila-martxoa, apirila-ekaina, uztaila-iraila, urria-abendua)	48,99

- 10 erabilerako bonua



	€
Heldua	39,33
18 urtez azpikoa	21,10

- 10eko taldeko bonua

	€
Heldua	39,33
18 urtez azpikoa	21,10

- Egunekeo sarrera

	€
Heldua	5,70
18 urtez azpikoa	3,03

- Sauna.

	Egunekeo sarrera (€)	10 saioetako bonua (€)
Bazkideak	2,88	21,67
Ez bazkideak	Sarrera + 2,88	62,54

- Alokairuak.

	Bazkideak (€/ordua)	Ez bazkideak (€/ordua)
Tenis pista	3,18	Sarrera + 3,18
Pilotalekua	6,42	Sarrera + 6,42
Kantxa	16,18	Sarrera + 16,18
	Zelai erdia (€/ordua)	Zelai osoa (€/ordua)
Futbol zelaia (Ez dago aldagela aukerarik)	54,53	87,24

- Ikastaroak.

	Hilabetekoa Bazkideak (€)	Hilabetekoa Ez bazkideak (€)	Hiruhilekoa Bazkideak (€)	Hiruhilekoa Ez bazkideak (€)
--	------------------------------	---------------------------------	------------------------------	---------------------------------

Helduen igeriketa (20 saio)	65,00	88,71	-	-
18 urtez azpikoen igeriketa (20 saio)	65,00	75,06	-	-
Igeriketa terapeutikoa	40,00	55,71	-	-
Haurdunaldikoaren igeriketa	35,00	50,71	-	-
Haurtxoen igeriketa	27,00	37,06	-	-
Aerofit	30,81	46,52	73,94	121,07
Bodytraining	30,81	46,52	73,94	121,07
Gimnasia erritmikoa	16,64	26,70	39,28	69,46
Adinduen soinketa	41,75	41,75	100,08	100,08
Mantenimenduko soinketa	46,22	61,93	110,92	158,05
Pilates	54,12	69,83	129,92	177,05
Ziklo indoor	54,12	69,83	129,92	177,05
GAP	30,81	46,52	73,94	121,07
Zumba	30,81	46,52	73,94	121,07
Funky	30,81	40,87	73,94	104,12

Hilabeteko gehigarria ikastaroetan kiroldegiko bazkide ez direnentzat:

- Helduak: **15,71 €**
- 18 urtez azpikoak: **10,06 €**

Ikastaroetako tarifa hauek 2024ko irailetik aurrera aplikatuko dira.

Galdutako edo hondatutako Bazkidetza txartel berria egitea: **4,93 €**

* Kultura eta denbora libreko jarduerak:

- Areria Eraikinaren erabilera, asteburuetan:

	Areto nagusia (€)	Sotoko aretoak (€)	Aretoko hall-a (€)
Egun erdiko erabilera	272,16	-	-
Egun osoko erabilera	436,48	-	-
Areto handiak	-	53,40	-

Areto txikiak	-	31,84	-
-	-	-	53,40

- Ludoteka zerbitzua:

	€
Gabonak eta Aste Santuko oporrak (ordua)	1,28
Uztaileko ludoteka zerbitzua (ordua)	1,28

- Kultura arloko ikastaroak (hilean).

	€
Areto dantzak	28,76
Plazako dantzak	23,62
Yoga	31,84
Robotika	33,89
Josteko ikastaroa	36,97
Marrazketa	28,76
Tasa generikoa: aurrekoetan jaso gabe dagoen beste kultura arloko ikastaro desberdin bat hilean	31,84
Areto dantzak	31,84
Udako ikastaroak, saio bakoitzeko	9,24

Ikastaroetako tarifa hauek 2024ko irailetik aurrera aplikatuko dira.

* Herri baratze publikoak:

	€
Urteko eta baratze bakoitzaren erabilera	55,70

* Larrialdiko etxebizitzaren erabilera:

	€
A motako etxebizitzak (gasik gabekoak), hileko	42,44

B motako etxebizitzak (gasa dutenak), hileko	100,78
--	--------

* Establezimenduak irekitzeko lizentziak emateko zerbitzua:

- Merkataritza jarduerak:

	€
Autozerbitzuak eta supermerkatuak	976,26
Hipermerkatuak, 2500 m ² tik gorako salmenta-azalera dutenak	1.697,43
Merkataritza lokalak, oro har	564,85
Familiarteko aroztegi tailerrak, zurgindegi, hojalateri, oinetako konponketa eta antzekoak	554,32
Gasolindegia	1.128,06
Janari, edari, pentsu eta abarren biltegiak	564,85

- Industria jarduerak:

	€
Biltegiak	293,57
Tailer eta fabrikak.	
5 zaldi bitarteko potentziakoak	389,29
6 zalditik 25era bitarteko potentziakoak	587,01
26tik 50era bitartekoak	976,26
51tik 100era bitartekoak	1.952,56
100 zalditik gorakoak	3.906,57

- Luxu jarduerak:

	€
Ostalaritza:	
1. maila	682,85
2. maila	389,29
3. maila	234,00

Jolas aretoak	488,14
Dantza aretoak	342,24
Taberna arruntak	682,85
Taberna bereziak	1.464,40
Ikuskizun publikoak	1.170,96
Joko aretoak, bingoak, eta abar	1.952,56
Baserrietako ukuiluak (guztiak)	293,57

- Aurretiko jakinarazpena behar duten jarduerak:

	€
Guztiak	271,56

* Auto-taxiak:

	€
Lizentzien erabilera eta ustiapena, urtean	30,74
Ibilgailu aldaketa	25,25
Lizentzi eskualdatzea	743,33

* Azoka:

	€
Postu eta m ² ko urtean	23,44

* Hirigintza baimenak:

	€
Proiektua behar eta bere aurrek. 18.000,00 euro azpitik duten obrak	396,44
Proiektua behar eta bere aurrek. 18.000,00 euro gainetik duten obrak	594,66
Segregazio lizentzia izapidetze zerbitzuagatik	39,66
Hondamendi espedientea	840,87

Lehen okupazioko lizentziak:	
Etxebizitza bakarreko etxea	247,77
Bi etxebizitzetako etxea	396,44
Etxebizitza anitzeko etxea, etxebizitza bakoitzeko, 250,00 euroko minimoarekin	65,03
Etxebizitza ez den lokalera destinaturikoa, m ² ko (trasteleku edo antzekoak)	1,29
Industria pabiloiak	396,44
Hirigintzako kudeaketa instrumentuen izapidetze zerbitzuagatik:	
Urbanizatzeko jarduketa programa	3.363,37
Kontzertazio hitzarmena	1.121,13
Kontzertazio Batz. eraketa eta Estatutu eta Oinarrien onarpena	4.652,51
Kontzertazio Proiektua	1.121,13
Kontzertazio Batzordearen aldeko desjabetzapen espedientea	1.121,13
Birpartzelazio Proiektua	1.681,67
Birpartzelazio prozedura laburtuak	840,87
Bestelakoak	840,87

Herri jabariaren erabilera pribatibo edo probetxamendu bereziaagatik Tasak:

	€
Kioskoak:	
Egunkari, aldizkari kioskoa	167,01
Freskagarri, izozki kioskoa	167,01
Kiosko mistoa (aurreko biena)	250,56
Itsuen kupoen kioskoa	329,74
Kutxazain automatikoak eta salmenta automatikoko makinak:	
Kutxazain automatikoak (m ² /eguna)	1,30
Makina saltzaileak (m ² /eguna)	0,28
Mahaiak, mahaitxoak, aulkiak, lurzoruak, loreontziak, ekitekoak edo antzeko instalazioak:	

Sei hilabete arteko epean (udaldia, maiatza-urria) unitate bakoitzeko (mahai 1 + 4 aulki)	60,83
Urtebete arteko epean eta unitate bakoitzeko (mahai 1 + 4 aulki)	81,12
Barrikak eta mahai altuak, bakoitzeko	55,50
Azoka eta herriko jaietan postuak (m ² edo zati eta hilabete edo zatiko):	
Taberna, kafetegi eta antzekoak	42,91
Txurrotegi eta txokolategiak eta ore frijitutako mahaiak	58,62
Pastelak, gozokiak, fruitu lehorrak, patata frijituak, bisuteria, jostailuak, liburuak eta abar saltzeko txosnak, etc.	46,04
Loreak, gaztainak eta izozkiak saltzeko txosnak	46,04
Animaliak, seiluak, txanponak eta antzekoak	46,04
Tiro txosnak eta bestelako jokoak	26,18
Tonbolak, zozketak, salmenta arinak eta antzekoak	46,04
Ziboak, tresna hegalaria, kale-satxoak, zaldiko-maldikoak, bunnerrak eta, oro har, mugitzen diren era guztietako aparailuak	46,04
Autotxoke pistak	46,04
Ikuskizun eta antzerkiak	6,84
Zirkuak (denagatik eta eguneko)	260,58
Erakusleio, beirarasa, apainketako aturre, olanak, aterpeak eta errotuluak (m ² edo zatiko eta urte edo zatiko):	
Erakusleio, beirarasa, erakustoki, apainketarako aturreak, erakusleioen osoketarako nahiz horien ordezkotako itxitura edo instalazioak	6,84
Toldoak	3,44
Aterpeak	7,84
Xede komertzial edo antzekoren bat duten iragarkiak, ondoko zenbakikoak ezik	36,02
Aurreko iragarkiak euskaraz:	
%50 hobaria ele bitan (euskara+beste bat) edo izen berezia denean	18,01
%75 hobaria euskara hutsean	9,01
Ibilgailuak espaloietan zehar finken barrualdera sartzea eta horien aparkamendu-erreserba herri bidean:	

Erabilera partikularreko lokaletara sarbidean, urteko:	
3 plaza baino gutxiagoko lokaletan	10,10
3-5 plaza bitarteko lokaletan	15,15
6-15 plaza bitarteko lokaletan	30,33
16-25 plaza bitarteko lokaletan	50,55
26-100 plaza bitarteko lokaletan	151,64
100 plaza baino gehiagoko lokaletan	252,74
Aparkamendu erreserbagatik, urteko	30,33
Plakaren kostua alta ematerakoan	70,77
Filmaketa edo antzeko jarduerak:	
Baimena ematea	123,24
Filmaketa edo jarduerak eragindako kale mozketak edo herri jabariaren okupazioa	328,64
Filmaketa edo jarduerak eragindako kale mozketak edo herri jabariaren okupazioa, filmaketa edo jarduerak euskaraz baldin bada	164,32
Hiri altzariak estali, kendu edo mugitzeagatik	154,05

UDAL ESKUMENEN ZERBITZUAK EMAN EDO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK EGITEAGATIK PREZIO PUBLIKOAK:

Udal argitalpenetan iragarkiak jartzeagatik:	€ + BEZ
Modulo bakoitza	66,76
Modulo bikoitza	124,27
Orrialde erdia	237,24
Orrialde osoa	465,23

Ibilgailuak energia elektriko hornitzea udal-kargaguneetan:	€/kW ordua
0,2975 euro/kW · h gehi 0,0625 €, BEZari dagozkionak. Guztira 0,36 euro/kW · h.	0,36

Aldatutako Ordenantza eta eranskinen gainerako hitzbaketak, Aldatutako Ordenantza eta eranskinen gainerako erabakiak, aurtengo eta aurreko urteetako Gipuzkoako Aldizkari Ofizialetan argitaratuak izan dira, eta hemen jasotzat ematen dira bere osotasunean ulertuak izan daitezzen ondorioetarako.

Hau guztia, Gipuzkoako Hazienda Lokalak erregulatzen dituen uztailaren Seko 11/1989 Foru Arauko 16.4 artikulua agindutakoa betez argitaratzen da, guztion jakinerako eta artikulua horretan aurreikusten diren gainerako ondorioetarako.

Foru Arau horren 18.1 artikuluan xedatutakoarekin bat, tasa, kuota, tarifa eta Ordenantzetan egindako finantze eta aldaketak onartzen dituzten erabaki horien kontra, interesatuek tartearri ahal izango dute errekurso Kontentzioso-Administratiboa dagokion Kontentziosoaren Epaitegiaren aurrean, bi hilabetetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

Horren kalterik gabe eta aipatu artikulua emandako baimenarekin bat, interesatuek jarri ahal izango dute, hala nahi badute eta bide Kontentzioso-Administratiboa hartu aurretik, Gipuzkoako Auzitegi Ekonomiko Administratiboaren aurreko erreklamazioa, horretarako hilabeteko epea dutelarik, argitalpen horiek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen diren egunaren biharamunetik hasita.

Lazkao, 2023ko abenduaren 18a
Alkatea,

Kepa Zubiarraín Erauskin.
(Digitalki izenpetuta)

